

Sarean da "Haur eta gazte literatura irakur gida 2013"

2014/09/13

Sarean jarri da, denon eskura, 2013. urteko *Haur eta gazte literatura irakur gida*. Liburuxkak 50 orri ditu eta, bertan, 160tik gora liburu aztertu eta sailkatu dituzte. 1990. urtetik hasita, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Haur Liburu Mintegiak kaleratzen du irakur gida.

Gidaren azken zenbaki hau egiteko, haur eta gazte literaturarekin lotutako 13 lagunek (Liburuzainak, eskoletako irakasleak eta fakultateko adituak) hartu dute parte. Mondragon Unibertsitateko Marikarmen Apraiz eta Nerea Alzola proiektuaren arduradunek dioten moduan, kaleratu berri den gida da, "talde baten lan jarraituaren eta liburu askoren irakurketaren emaitza". Lan egiteko moduari dagokionez: "haur eta gazte literaturaz 2013. urtean euskaraz publikatu dena irakurri, gure irakurketak kontrajarri eta hizkuntzaren erabilpena, kalitate literarioa, gaiari ematen zaion tratamendua, eta abar kontutan izanda baloratzen ditugu".

Bi modutan sailkatzen dira mintegiak irakurri dituen lan horiek guztiak: "liburu gomendagarriak" eta "oso gomendagarriak". Azken horiei, gaienera, aztertzailerek erreseina bana gehitu diete.

Guztira, 160 liburutik gora irakurri, ebaluatu eta sailkatu dituzte 2013ko gida osatzeko. Sailkapena antolatuta dago haur eta gazteen adinaren arabera.

1990. urtean hasi ziren Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Haur Liburu Mintegiko kideak literatura gida kaleratzen (2001. urtetik, sarean). Proiektua elkarlanean egiten dute fakultateko arduradunek, Debagoienako udal liburutegiko eta ibarreko ikastetxeetako irakasleekin batera.

- 2013. urteko gida deskargateko, pdf formatuan: [Literatura irakur gida 2013](#)
- Gidaren bilduma osoa kontsultatzeko: [Literatura irakur gida: 2001etik 2013ra](#)



2013. urteko irakur gidaren azala.